

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixenta Pagoaga Gonzalez

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1911-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

ARR-003

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2004-11-05
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ARR-004

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2004-11-05
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. "Haurtxo txikia narru gorrian..." kanta

- **Erref:** ARR-003/011
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>"Haurtxo txikia narru gorrian..." kanta.</p>

Transkripzioa

Haurtxo txikia, narru gorrian
hotzitzen ere ez zera
amoriuak ekarri zaitu
zeru goitikan lurrera.
Jangoikuaren semea zera
Nola litzake bestela?
Belen aldeko artzai guztiak
datoz zu adoratzer.

Manuel txikia kontentuz dago,
txit aingeru asko juntatzen zaio
Manuel txikia kontentuz dago
txit aingeru asko juntatzen zaio (bis).

2. "Ume txikia negarrez dago..." kanta

- **Erref:** ARR-004/001
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Ume txikia negarrez dago..." kanta abesten du Pedrok.</p>

Transkripzioa

Ume txikia negarrez dago
ama emazu titia
amak emango titi goxua
lo egiteko gustora.

Lo egiteko gustora eta
ama lanian dabilla
Aita gaiztua tabernan dago
pikaro jokalaria.

- Eta hori be lo-eraittekua zan?
- Bai, lo-eraitteko kantua zan.
- Eta hori zeñi ikasi zetsazun zuk?
- Hori amak kantetan auen.
- Amak hori be bai?
- Bai.

3. `Arre, arre mandako´ kanta

- **Erref:** ARR-004/003
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>`Arre, arre mandako´ kanta ezaguna.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, beste kantu batzuk egoten ziran, ba, umia hanka-gaiñian edo altzuan edo holan...
- Egongo zien, egongo zien, baiña ni gaur por gaur ez naz akordetan.
- "Arre, arre, mandako" ta...
- B: "... bixer Tolosarako, etzi Panplonarako. Handik zer ekarriko? Zapata ta gerriko."
- Orduan akordatzen zarie...
- B: Amak kantetan oskun:

Arre, arre, mandako,
bixer Tolosarako
etzi Panplonarako.

Handik zer ekarriko?

Zapata ta gerriko.

- Norentzako? Ez zan galdetzen holan?

- B: Norendako, aittendako.

4. "Toka-torreka" jolasa

- **Erref:** ARR-004/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

"Toka-torreka" jolasten zuten umetan. Bi talde behar izaten ziren jolas egiteko.

Transkripzioa

- Bai, guk toka-torreka ta eitten gauen, toka-torreka.

- Zelan?

- Toka-torre.

- Eta zelan da hori?

- Toka-torreka zan, [arin-arinka ibiltzera]. Ipini alde baten sei mutiko ta bestaldien beste sei mutiko. Eta lehenengoko hara juaten zana hara, ha hormie jotzen auna, ha zan... Zera, han preso baeuezen batzuk. Zu ariñekez bazebitzen, ezta? Ta bata bestiei [zirkuka] ta. Bati ebaketan eutsen ta eruten euen hara, preso moduen, torrera. Ta zu [haren gaiñetik] edo alde batetik edo bestaldetik han sartzen bazitzen iñok ikutu barik, ha bestia librau eitten [dozun]. [...] toka-torreka.

- B: Taka-torreka.

5. Umetako jolasak; "Txorro-morro" jolasa

- **Erref:** ARR-004/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. "Txorro-morro" jolasaren inguruko azalpena.

Transkripzioa

- Ta beste bat, beste bat zan... zan "Piku, kallo, ke". Bizenta, "Piku, kallo, ke" zelan zan?

- "Txorro-morro"...?

- "Txorro, morro, piku, kallo, ke".

- Hori, baiña, halan, alkarren gaiñera salto eitten, ezta?

- Bai.

- Zelan eitten zenduen?

- Hori izeten zan: bat egoten zan jarritta, harmaillan jarritta, ezta? Bat. Ta haren azpizen makurtuta bat. Ta haren atzekaldien beste bat makurtuta. Ta

- Ta noiz esaten zan "Txorro, morro" hori?
- "Txorro, morro"... A! "Txorro, morro" esaten zan... Bat... Zu ipintzen [zitzen] holan, ezta? Eta bestia hamen burua azpiken dauela. Ta esaten [zan]: "Txorro, morro, piku, kallo, ke". Ta "txorro" ta "morro" ta... "piku" izango zan ta "kallo", "ke". Ta ez baeuen azertetan esaten [zan]: "Si hubieras dicho [sardinito], si hubieras dicho..."... "Si hubieras dicho sardin-zesto..."... ez naz akordetan oin!... Ez zara akordetan, Bixenta, horrekin?
- B: Txorro-morroka?
- Ez, txorro-morroka da gauza bat, baiña hori bestie zan: "Txorro, morro, piku, kallo, ke". "Txorro", "morro", "piku", "kallo", "ke". Ta zan: azertau ein biher euen bestiak. Zuk atzamarrak holan [baaukozun] "sardin-zesto" zan ta holan [baaukozun] "piku". Ta bestie "kallo" holan ta... Holan zan. Ipini bihar [dozun...] ta azpiken dauenak igarri ein biher [eutsen]. Ta: "Si hubieras dicho sardin-zesto..."...
- B: Txorro-morroka.
- Bai, hori ba. "Txorro, morro, piku, kallo, ke". Ta: "Si hubieras dicho sardin-zesto, si hubieras dicho no sé qué, tara-ri-ra...". Erderaz ez [zakiun] ta!
- Eta hori erderaz zan?
- Bai, hori erderaz zan. Baiña erderaz, zelako erderaz, e! Zelabaitekua!

Azkue ezagutu zuen. Haren inguruko kontuak aipatzen ditu. Arrasatera zertara etortzen zen. Herriko beste pertsonaia ezagun batzuekin batera tertuliak.

8. Herri euskaltzalea; maiatzaren 1a

- **Erref:** ARR-004/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Herri euskaltzalea. "Primero de mayo" eguna nola ospatzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com